



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Aldundiak Bizkaiko Begiralekua edo Bizkaiko Balkoia egokitze lanak hasi ditu, alboetako lurretako jaubeakaz errentamendurako akordioa lortu ostean

Bilbon, 2014ko ekainaren 24an.

Aldundiak “Bizkaiko Balkoia” garbitzeko eta egokitze lanak hasi ditu, Oiz mendiaren hegaletako batean dagoan begiralekuaren ondoko lurren jaubeakaz errentamendurako akordioa lortu ostean, Irene Pardo Nekazaritzako Foru Diputatu andreak Batzar Nagusietako Nekazaritza eta Ingurumeneko batzordean gaur jakinarazo dauenez.

Batzordeak EH Bildu taldeak aurkeztutako Arauz Besteko Proposamen bat onartu dau. Proposamen horretan eskaerea egiten jako Aldundiari, “Bizkaiko Balkoiaz’ arduratu daiten eta begiraleku horri balioa emoteko beharrezkoak diran ekimen eta ekintza guztiak atoa bultzatu daizan, herritar guztiak, bere osotasunean eta edertasunean goza daien”.

EH Bilduk aurkeztutako ekimena talde guztien aldeko botoagaz onartu da, Bizkaiko Talde Popularreko (PP) bi ordezkariena izan ezik, abstenidu egin dira eta. Arturo Aldecoa PP-ko bozeroaleak iragarri dauenez, bere taldeak, “Bizkaian turismorako interesa daukien begiraleku guztiak barne hartuko dituan ekimen orokorragoa eta globalagoa” aurkeztuko dau.

Pardok adierazo dauenez, “Aldundiak 2013ko udabarririk daroa gai horretan beharrean”, eta esan dau “begiralekuaren ingurunea hobetzeko beharrak ezin izan dirala hasi alboko lurren jaubeakaz akordioa lortu arte, lur horreen jaubeak pribaduak diralako”. Katastroan egin beharreko kontsultak egin ostean eta lur-sailak baloratu eta gero, Aldundiak hasieran erosketarako eskaintzea egin eutsien lurren jaubei, eta gero “zainketako kontratua”, baina aukera bi horreek ez ebezan onartu. Azkenean, eta “Mendatako udalaren bitartekaritza esker”, errentamendurako akordioa lortu da, erosketako aukeragaz, 12 urteko epealdi luzagarrirako.

“Q SUKAR” AGERRALDIA

Arraitzeko (Bilbo) TMB lantegiko beharginengan eragina izan dauen Berriatuko “Q sukar” agerraldiak eztabaida gogorra sortu dau gaur egin dan batzordean, arazoaren jatorri posibleari buruzko susmoek eragindakoa, batez be. ““Q sukarrak’ gaixotzen diran pertsonen %5ak osasun arazo larriak garatu daikezala” adierazo eta gero, Arturo Aldecoa PP-ko batzordekideak sukar agerraldiaren jatorri posible moduan, “erjilinoagaz erlazionautako zergaitiak dirala eta, sakrifiketako abereak modu irregularrean saldu izana” aitatu dau.

Socialistas Vascos (PSE-EE) taldeko Isaac Fernández batzordekideak popularraren berbak “asmo txarrekoak” dirala esan dau, eta gogoratu dau Euskal Herrian ohiko kanaletatik aparte animalia gehien sakrifiketara dituenak abeltzainak eurak dirala, askoren etxeetan egiten diran txarriaren hilketa tradizionalak ez aitatzearren”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Bizirik dagozan animalien sakrifizioa ez dagoala bere sailaren eskumenen barruan gogoratu ostean, joan dan apirilaren hasieran TMB-ko lantegian izandako “Q sukar” agerraldiaren unetik beretik Aldundiak hartutako neurriak gogoratu ditu Irene Pardok. Lehenengoa, lantegia dagoan Arraiz mendiaren inguruko 9 ardi eta ahuntz talde aztertzea izan zan, 246 buru guztira, eta horreei, ondoren, Markina-Etxebarria inguruko beste 14 animalia talde gehitu jakezan. “Kasu guztietan animaliei egindako azterketek emaitza negatiboak emon ebezan” adierazo dau diputatu andreak.

KARRANTZAKO HILTEGIA

Animalien sakrifizioagaz erlazionautako beste puntu batek, Karrantzako hiltegiaren egoerari eta etorkizunari buruzkoak, hartu dau Nekazaritza eta Ingurumeneko batzordearen beste parte handi bat, EH Bildu taldeak aurkeztutako agerraldi eskaeretak baten eta Arauz Besteko Proposamen baten bitartez. PSE-EE taldeak zuzenketa eskeak sartu ditu. Ekimenak ez dau aurrera egin, EAJ-PNV taldeak kontra botau dauelako eta PP abstenidu egin dalako. Bere ekimenean, EH Bilduk “erakundeek Karrantzako hiltegiari emon beharreko derrigorrezko laguntzea” eskatzen eban.

Asier Vega EH Bilduko bozeroalearentzat, proposamena “Karrantzako hiltegiak bizi dauen egoera gogorak eragin dau, Bizkaian beharrean jarraitzen dauen bakarrak, 2 milioi euroko zorra izateaz gain, urria baino lehen 76.000 euroko inbertsinoa egin behar dauelako, bere instalazinoak Eusko jaurlaritzako Osasun Sailaren eskakizun barrietara egokitu ahal izateko”. Horrez gain, “abeltzaintzak Karrantzan daukan jardueraren garrantzia be azpimarratu dau”.

Edorta Rodrigo EAJ-PNV-ko bozeroaleak, aitatutako hiltegi horren udal izaerea azpimarratu dau, eta esan dau “Karrantzako udala Eusko Jaurlaritzak, landa guneen sustapenerako eta garapenerako Erein programaren barruan aurreikusitako laguntzak jasotzeko garaiz dagoala oraindino”. Ildo berean, Arturo Aldecoa PP-ko bozeroaleak hiltegiaren “toki” izaerea azpimarratu dau, eta gehitu dau, “batez be esnea emoten daben animalien sakrifiziora dagoala bideratuta, animaliek esnea emoteari ixten deusienean”.

PSE-EE proposamenaren alde agertu da, EH Bilduk, hiltegiari “abereak garraiatzeko ibilgailuak desinfektetako instalazinoa” emoteko eskatzen eban zuzenketa eskea onartu eta gero.

Irene Pardok, EH Bilduk egindako agerraldi eskariari erantzunez, esan dau bere Sailak dakienez “Enkarterrin edo Bizkaiko beste lekuren batean, ez dagoala bestelako hiltegi bat zabaltzeko inolako proiekturik”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

La Diputación ha iniciado trabajos para acondicionar el Balcón de Bizkaia tras llegar a un acuerdo de arrendamiento con propietarios de terrenos colindantes

Bilbao, a 24 de junio de 2014.

La Diputación ha iniciado trabajos de limpieza y acondicionamiento del “Balcón de Bizkaia” tras llegar a un acuerdo de arrendamiento con propietarios de los terrenos colindantes al mirador, ubicado en una de las laderas del monte Oiz, según ha informado hoy la Diputada foral de Agricultura Irene Pardo en la comisión de Agricultura y Medio Ambiente de Juntas Generales.

La comisión ha aprobado una proposición No de Norma presentada por EH Bildu por la que se insta a la Diputación a “que se responsabilice del ‘Balcón de Bizkaia’ e impulse de manera inmediata todas las iniciativas y acciones necesarias para la puesta en valor del mirador, para que pueda servir para disfrute de la ciudadanía en toda su integridad y belleza”.

La iniciativa de EH Bildu ha sido aprobada con el voto a favor de todos los grupos menos del grupo Popular Vizcaíno (PP), cuyos dos representantes se han abstenido. El portavoz del PP Arturo Aldecoa ha anunciado que su grupo presentará otra iniciativa “más genérica y global, que incluirá a todos los miradores de interés turístico de Bizkaia”.

Pardo ha asegurado que “la Diputación lleva trabajando en este asunto desde la primavera de 2013”, y ha explicado que “las labores de mejora del entorno del mirador no han podido comenzar hasta lograr un acuerdo con los propietarios de los terrenos colindantes al enclave, que son de titularidad privada”. Tras las correspondientes consultas catastrales y valoración de las parcelas, la Diputación realizó una oferta de compra, primero, y un “contrato de custodia”, después, a los propietarios de las mismas, que rechazaron ambas posibilidades. Finalmente, y “gracias también a la mediación del ayuntamiento de Mendata”, se ha logrado alcanzar un acuerdo de arrendamiento, con opción de compra, de los terrenos por un período de 12 años prorrogables.

BROTE DE “FIEBRE Q”

El brote epidémico de “fiebre Q”, que ha afectado a personal de la planta de Tratamiento Mecánico Biológico (TMB) en Arraiz (Bilbao), ha protagonizado un intenso debate en la comisión celebrada hoy, motivado, sobre todo, por las sospechas sobre el posible origen del problema. Tras señalar “que el 5% de las personas que enferman de ‘fiebre Q’ pueden llegar a desarrollar serios problemas de salud”, el juntero del PP Arturo Aldecoa ha situado como posible origen del brote epidémico “la venta de ganado para su sacrificio de manera irregular por parte de personas por motivos religiosos”.

El apoderado del grupo Socialistas Vascos (PSE-EE) Isaac Fernández ha calificado de “tendenciosas” las palabras del representante popular y ha recordado que “en el País Vasco los



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

que más animales sacrifican fuera de los canales habituales son los propios ganaderos, por no hablar de las tradicionales matanzas del cerdo en entornos particulares”.

Tras recordar que el sacrificio de ganado vivo no es competencia de su departamento, Irene Pardo ha repasado las medidas adoptadas por la Diputación desde el momento en que fue informada por el Servicio Vasco de Salud del brote epidémico de “fiebre Q” en la planta de TMB a principios del pasado mes de abril. La primera fue identificar y analizar 9 rebaños, 246 cabezas en total, de ganado ovino y caprino del entorno del monte Arraiz donde se ubica la planta, a los que se sumaron poco después otros 14 rebaños de la zona de Markina-Etxebarria. “En todos los casos, los análisis realizados al ganado dieron resultados negativos”, ha asegurado la diputada.

MATADERO DE KARRANTZA

Asimismo, relacionado con el sacrificio de animales, la situación y el futuro del Matadero de Karrantza han ocupado también buena parte de la comisión de Agricultura y Medio Ambiente, a través de una petición de comparecencia y una Proposición no de Norma presentada por EH Bildu, que ha sido enmendada por PSE-EE. La iniciativa no ha prosperado por el voto en contra de PNV y la abstención del PP. En su iniciativa, EH Bildu solicitaba “el necesario apoyo de las instituciones al matadero de Karrantza”.

Para el portavoz de EH Bildu Asier Vega, la proposición está motivada por “la difícil situación del matadero de Karrantza, el único que sigue activo en Bizkaia, que, además de acumular una deuda de unos 2 millones de euros, debe hacer frente, antes del mes de octubre, a una inversión de 76.000 euros para adaptar sus instalaciones a las nuevas exigencias del Departamento de Salud del Gobierno Vasco”. También ha subrayado “la importancia que tiene la actividad ganadera en Karrantza”.

El portavoz del PNV Edorta Rodrigo ha destacado el carácter municipal del citado matadero, y ha afirmado que “el ayuntamiento de Karrantza está a tiempo de acogerse a ayudas contempladas por el Gobierno Vasco dentro del programa Erein para la promoción y desarrollo de las zonas rurales”. En la misma línea, el portavoz del PP Arturo Aldecoa ha destacado el carácter “local” del matadero, así como que “está destinado básicamente al sacrificio de ganado de leche cuando deja de producir ésta”.

El PSE-EE sí ha apoyado la proposición al aceptar EH Bildu una enmienda por la que se solicitaba dotar al matadero de “una instalación para la desinfección de vehículos para el transporte de ganado”.

Por su parte, y respondiendo a la petición de comparecencia de EH Bildu, Irene Pardo ha asegurado en la cámara que su departamento “no tiene conocimiento de ningún proyecto para la apertura de otro matadero en Encartaciones o en otra zona de Bizkaia”.